

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3971

*AGINDUA, 2023ko uztailaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita honako agindu honen edukia: Agindua, 2023ko uztailaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2023ko apirilaren 19ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntzen eskabideak ebazten dituena. Agindu horren bidez arautzen eta iragartzen dira 2023ko ekitaldian jarduera fisikoaren arloko orientazio-zerbitzuak sortzeko eta mantentzeko dirulaguntzak, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.*

## AURREKARIAK

1.– 2023ko apirilaren 27an argitaratu zen EHAAn, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko apirilaren 19ko Agindua. Agindu horrek arautzen eta iragartzen ditu 2023ko ekitaldian jarduera fisikoaren arloko orientazio-zerbitzuak sortzeko eta mantentzeko dirulaguntzak, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

2.– 2023ko apirilaren 19ko Aginduaren 14. artikulua ezartzen du dirulaguntzak emateko aginduaren edukia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela, hargatik eragotzi gabe dirulaguntzen eskatzaileei ebazpena banan-banan jakinaraztea.

Hori dela eta,

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, I. eta II. eranskinetan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko apirilaren 19ko Aginduaren dirulaguntzen eta onuradunen zerrenda, eta ezetsitako eskabideen zerrenda.

Bigarrena.– Honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea interesatu guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 26a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

## I. ERANSKINA

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Entitatea	Espedientea	Puntuak	Dirulaguntza
Amurrioko Udala P0100200E	016-MUG-2023	61	19.686,83 €
Aretxabaletako Udala P2001400G	017-MUG-2023	56	18.073,15 €
Arrasateko Udala P2005900B	020-MUG-2023	21	6.777,44 €
Arrazua-Ubarrundiako Udala P0100900J	004-MUG-2023	35	5.870,09 €
Eibarko Udala P2003100A	015-MUG-2023	56	18.073,15 €
Etxebarriko Udala P4803600H	021-MUG-2023	76	24.527,86 €
Gorlizko Udala P4805100G	006-MUG-2023	61	19.686,83 €
Legutioko Udala P0106700H	009-MUG-2023	66	12.995,58 €
Pasaiako Udala P2006900A	013-MUG-2023	95	30.659,81 €
Zamudioko Udala P4811000A	010-MUG-2023	62	20.009,56 €
Bilbao Kirolak Instituto Municipal de Deportes SA A95530309	019-MUG-2023	64	20.655,03 €
Durango kirolak P9803406I	005-MUG-2023	83	26.787,00 €
Ermuko Udala P4804100H	002-MUG-2023	51	16.459,48 €
Lemoako Udala P4806500G	011-MUG-2023	62	20.009,56 €
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa P4800001B	014-MUG-2023	95	30.659,81 €
Oñatiko Udala P2006300D	001-MUG-2023	57	18.395,89 €
Patronato Municipal de Deportes de Donostia Q2000542G	007-MUG-2023	100	32.273,49 €
GUZTIRA			341.600,56 €

## II. ERANSKINA

## EZETSITAKO ESKAERAK

Entitatea	Espedientea	Arrazoia
P2007900J Ayuntamiento de Bergara	003-MUG-2023	Erakundearen egitura iraunkorrari edo ohiko egiturari dagozkion gastuak ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak (Aginduaren 6.2 artikulua)
P0102100E Ayuntamiento de Kuartango	018-MUG-2023	Ez ditu betetzen diruz laguntzeko moduko jarduketa izateko baldintzak: zerbitzuak ez du deribaziorik jasotzen osasun-zentrotik Osabide Global plataformaren bidez (Aginduaren 1. eta 5.1 artikulua)